

EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN POLITIKAK EUSKAL HERRIKO GOBERNANTZA BERRIARI BEGIRA

⇒ Euskal kultura

AURKIBIDEA

A – Tokiko kultur ekintzaren egituraketaren historia.....	4
B – Euskal kulturaz arduratzen diren tokiko dispositiboen analisia eta mugak.....	7
C – Gogoeta bideak: zer da euskal kultura?.....	14
D – Euskal kulturaren kudeaketa moldeei buruzko aholkua, Ipar Euskal Herriko elkargoa sortuko balitz	19
E – Eranskinak.....	23

Iturriak: EKE, herri arteko elkargoak, 64 Departamendu Kontseilua, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua, "Politique culturelle et langue basque. Le centre culturel du Pays Basque (1984-1988)", Denis Laborde, Etnlogoa, CNRSean ikerketa zuzendaria, Lapurdum, 1997.

A - TOKIKO KULTUR EKINTZAREN EGITURAKETAREN HISTORIA

Tokiko kultur ekintzaren egituraketaren historia

- **1970eko hamarkada: elkarte eragileen mobilizazioa euskarari eta euskal kulturari buruz**

1970eko hamarkadan 1980ko hamarkada hastapena arte, Ipar Euskal Herrian, euskararen eta euskal kulturaren arloko eragileak anitz mobilizatu ziren: dantza federazio bat plantan eman zen, Lauburu ondare-ekintzako elkarteak sortu zen, hiri eta herrietan kultur asteak garatu ziren, euskarazko lehen gaueskolak abiatu ziren, tokiko lehen elkarte-irratia sortu ziren, Pizkundea –euskal kulturaren arloko elkartearen federazioa– agertu zen, euskal artisten federazioa martxan eman zen, Ipar Euskal Herriko barnealdean kultur etxeak sortu ziren (Ühaitza Xiberoan, Haize Berri Baxe Nafarroan, Eihartzea Hazparden...). Garai berean, kostaldean ere, konpainia berriak (Chimères, Versant...) eta jaialdi berriak (franko-iberikoa Baionan eta Antzerkiaren maiatza Hendaian) sortu ziren, eta Frantziako Musika Eskola Kontserbatorio bilakatu zen.

- **1984an, Euskal Herriko Kultur Etxearen sortzea**

Frantzian lehen aldiko, erakunde berezi bat sortu zen besteak beste euskal kultura kudeatzeko xedearekin. Egituraren eginkizuna araudiaren 5. artikuluan agertzen da: “Euskal Herriarendako animazio gunea, diziplina anitzeko ikusgarrien hedapen, sorkuntza eta koprodukzio gunea, kultur truke eta bilaketa gunea, maila gorenean eta arlo guzietan, tokiko kulturendako sostengu aktibo eta sortzailea”. Euskal Herriko Kultur Etxea elkarte-mugimendutik jalgi proposamenak eta gobernuak kulturaren arloan zehaztu ildoak bil zitzakeen lehen erakunde-eremua bilakatu zen, aldi berean tokiko agintariak inplikatz lehen-lehenik. Baina, biltzar osatzailetik beretik, desadostasunak agertu ziren hautetsien gehiengoaren eta Pizkundeako elkartearen artean, azken horiek euskal berezitasuna kontuan har zedin nahi baitzuten; beraz, hautetsiei leporatu zieten euskarari lehentasuna ematea ukatzea. Euskal Herriko Kultur Etxea 1988an lehertu zen, eta ondorioz, batetik Euskal Kultur Erakundea sortu zen (euskal kulturari dedikatua) eta bestetik Eszena Nazionalea (ikusizun biziarentzat, oro har). Aldi berean, Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikata sortu zen. (*Iturriak: Politique culturelle et langue basque. Le centre culturel du Pays Basque (1984-1988); Denis Laborde, Lapurdum; 1997*).

- **1990-2000 hamarkadak: EKEren sortzea eta kultura tokiko garapenaren funtsezko faktore gisa aintzat hartzea**

- ✓ Euskararen eta euskal kulturaren arloetako elkarteek bultzaturik, botere publikoek Euskal Kultur erakundea sortu zuten. 1901eko legearen arabera elkarteak botere publikoetako maila guziak biltzen ditu.

Tokiko kultur ekintzaren egituraketaren historia

(Estatua, Departamendua, Eskualdea, EKAHASen bildu herriak) eta elkarte-eragileak.

- ✓ Garai berean (1992), Garapen Kontseiluak eta Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak lurraldearen garapenerako eta antolamendurako proiektua apailatu zuten. Proiektuaren gauzatzeko, Estatuarekin, Departamenduarekin eta Eskualdearekin lotu ziren, 2000-2006 Hitzarmen Bereziaren bitartez. Hitzarmen horren segida 2007-2013 Lurralde Kontratuak hartu zuen. Orduz geroztik, kultura tokiko garapenaren funtsezko bide gisa agertzen hasi zen. Bi kontratu horien kariatara, lurraldean kultur ekipamenduak emendatu ziren.

1. Hitzarmen Berezia (2000-2006):

- Ondarea: lurraldeko ondare-ekintzaren antolatzea eta indartzea: Euskal Museoaren berritzea, Irisarriko Ospitalea Ondarearen Hezkuntzarako Zentroaren sortzea, Konpostelako ondareari buruzko plan orokorra etab;
- Irakurketa publikoa: sarearen sendotzea, lurraldeko bizi-eremu bakoitzean ekipamenduak eraikiz, batez ere Ipar Euskal Herriko barnealdean;
- Ikuskizun bizia: hedapen egituren sarearen hobetzea, besteak beste Herri Antzokiak sortuz, Eszena Nazionalaren osatzeko. Azken hori “baliabide-egitura” izendatu zuten ikuskizun biziaren arloan. Bestalde, ikuskizun biziaren arloan, EKE sorkuntzarako laguntzak proposatzen hasi zen, profesionalentzat batez ere.

2. Ipar Euskal Herriko lurralde kontratua (2007-2013):

- Irakurketa publikoa: euskal funtsen bateratzeko proiektua, sarean animatu atari baten bidez : Bilketa ;
- EKEren sendotzea, aitzinkontua emendatuz, eta funtzioei buruzko gogoeta baten eramatea. Gogoeta horren ondorioz, EKEk funtzio berri bat hartu zuen → elkargoak laguntzea euskal kultura hobeto kontuan har dezaten beren kultur politika publikoetan.

3. 2014/2020 Lurralde Kontratuak: osatzekoa, onartuko den edukiaren arabera

Sintesia:

4 hamarkadatan, kulturaren arloaren antolaketa anitz aldatu zen lurraldean. 1970-1980 hamarkadetan, kasik elkarteak baizik ez ziren arduratzen kulturaren arloaz. **1990 eta 2000 hamarkadetan, aldiz, kultur guneak emendatu ziren (antzokiak, mediatekak, musika-eskolak etab.), EKE sortu zen, eta horrez gain, kultur eskumena partez ala osoki har zezaketen herri arteko elkargo batzuk eratu ziren.**

B – EUSKAL KULTURAZ ARDURATZEN DIREN TOKIKO DISPOSITIBOEN ANALISIA ETA MUGAK

1. Euskal Kultur Erakundea
2. Herri arteko elkargoak

1. Euskal kultur erakundea

I. Euskal kultura sustatzeko elkarte-tresna

- **1990an sortu zuten** botere publikoek, Pizkundea euskal elkarten federazioak bultzaturik, azken hori baitzen, urte anitzetan, euskal kulturari zegokion funtsezko egitura.
- **Eginkizuna:** euskal kulturaren sustatzea, garatzea eta hedatzea, molde iraunkor eta aldi berean aldakorrean. EKEren lehentasunezko ekintza eremua “Ipar Euskal Herria” da. Bestalde, ekintzak sustatzen ahal ditu eskualdean, Frantzian eta nazioartean.
- **1901eko legearen arabera elkarteak, 3 taldez osatua:**

Erakunde kideak	EKAHASeko herri kideak	Kultur Eragileak
• Frantziako Estatuak • Akitaniako Eskualdeko Kontseilua • Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua • EKAHAS • Euskal Autonomia Erkidegoa	• 146 herri Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikateko kide	• Arte munduan ari diren elkarteak eta bertze pertsona moralak (157) • Adituak

- **Biltzar Nagusiak** erakunde eta elkarte kide guztiak biltzen ditu
 - ↳ Kontuak eta txosten moralak onartzen ditu, eta kultur proiektuaren berri hartzen du
- **Administrazio Kontseilua:**
 - ✓ 9 erakunde kide: Estatuak 2 ordezkari, Akitaniako Eskualdeko 2 ordezkari, 64Dko 2 ordezkari, EKAHASeko 2 ordezkari, EAEko ordezkari 1
 - ✓ 11 elkarte eta aditu kide
 - ↳ Ildo orokorrak eta kultur proiektua zehazten ditu, horiek gauzatzeko behar diren baliabideak mobilizatzen ditu, finkatu helburuak lortzen direla zaintzen du.

1. Euskal kultur erakundea

II. EKEren eginkizunak

(Ikus EKEren jardueren aurkezpen sintetikoa eranskinetan, 23. orrialdean)

- **Eginkizuna:** euskal kulturaren sustatzea, garatzea eta hedatzea, molde iraunkor eta aldi berean aldakorrean
- **Esku hartze arloak:** ikuskizun bizia (dantza, antzerkia, musika, kantua, karrikako arteak...), bertsolaritza, literatura, ikus-entzunezko ekoizpena eta hedapen numerikoa, arte plastikoak, ondarea eta ingurumena, turismoa eta gastronomia, bestak, aisialdia, euskal kirolak eta jokoak.
- **4 esku-hartze mota:**
 - ✓ Obragintza publikorako laguntza, kultur politika publikoak apailatzeko;
 - ✓ Obragile, politika publikoen programetan;
 - ✓ Ingeniaritza, kultur eragileekin;
 - ✓ Obragintza, proiektu egituratzaileetan.
- **2015eko jarduerak, 5 ardatzen inguruan :**
 - ✓ Aholkatzea, kultur politika publikoen zehazteko
 - ✓ EKEren ondare-adarraren indartzea
 - ✓ Euskal kulturari buruzko hezkuntza eta sentsibilizazioa
 - ✓ Eskaintza numeriko baten garatzea
 - ✓ Eragileen laguntzea



1. Euskal kultur erakundea

III. Giza eta diru baliabideak

- ✓ Lantaldea 9 jendek osatua da
- ✓ EKEren aitzinkontuaren %61 Estatutik, Departamendutik eta Eskualdetik heldu dira

GASTUAK		SARTZEAK	
Proiektu kulturala	681 037 €	Diru laguntzak	578 000 €
1/ Politika publikoen definitzeko aholk.	58 374 €	Estatua	196 000 €
2/ Proiektu berriztatzaileak bultzatu	65 739 €	Departamendua	196 000 €
3/ Eragile kulturalak lagundu	490 316 €	Eskualdea	186 000 €
4/ Informatu, komunikatu	66 609 €		
		Kotizazioak	148 700 €
Futziionamendu gastuak	232 463 €	EKAHAS	144 200 €
		Elkarteak	4 300 €
		Gainerateko sartzak	213 800 €
		Laguntza prib.	23 000 €
Amortizamenduak	27 000 €	Proiektu partaidetzak	184 800 €
		Uniformentazio	6 000 €
Orotara	940 500 €	Orotara	940 500 €

⇒ Sintesia eta mugak

Euskal kultur erakundea botere publikoek sortu zuten, euskararen eta euskal kulturaren arloko elkarteek bultzaturik, kultura kasik elkarteek bakarrik jorratzen zuten garaian. Lehen urteetan, hain justu, elkarteekiko harremanak lantzea eta lurraldean egituratzea izan ziren EKEren lan nagusiak. Kultur eragile profesional eta amateurren laguntzeko dispositiboa, egun ere, EKEren funtsezko funtzioetako bat da.

Geroztik, Ipar Euskal Herrian kultur ekipamendu bereziak sortu dira, eta herri arteko elkargo gehienek politika publikoak aktibatu dituzte kultur gaian. Beraz, gaur egun, kultura, neurri handian eragile publikoek kudeatua da. Horri buru egiteko, EKEk Obragintza Publikorako Laguntza funtzioa hartu du, erakunde publikoak laguntzeko euskal kultura barneratzen beren kultur politika publikoetan, lurralde osoaren eta kulturaren arlo guzietan elikatzeko.

1. Euskal kultur erakundea

Baina kultura eskumena erakunde guziek partekatzen dutenez, **eginkizun hori zaila da gauzatzen; eta, nahiz indar guziak egin, EKEk pisu guti du politika publikoen zehazteko mementoan. Zailtasun horrek elkarte-tresnaren mugak agerian uzten ditu; alabaina, euskal kultura sustatzeko eta garatzeko eginkizuna eman zaio, baina berak ez du politika publikoak zehazteko gaitasunik. Bestalde, erakunde-eragile batzuek euskal kultura ez dute beren politiketan barneratzen, beren ustez EKEk baitu gai hori osoki kudeatzeko eginkizuna.**

Azkenik, kultura eskumen partekatua denez, kultur eragileek solaskide eta dispositibo anitzengana jo behar dute proiektuen gauzatzeko; **horrez gain, maiz, “euskal kultura” proiektuak EKEra bideratzen dira, baina azken horrek ez du behar den baliabiderik erakundeen diruztatze dispositibo guzien ordezkatzeko.**

2. Herri arteko elkargoak

Ikus Herri arteko 10 erakundeek kulturaren eta bereziki euskal kulturaren arloan dituzten eskumen eta praktiken argazki sintetikoa, eta herri arteko lurralde horietako ondarearen, kultur ekipamenduen eta kultur eragileen zerrenda, eranskinetan 30. orrialdean

➔ Sintesia eta mugak:

Herri arteko lurraldeetan, elementu hauek ageri dira maiz

- ✓ Elkarre sareak lurralde guzietan badira. Tokiko kultur biziaren zati garrantzitsua da.
- ✓ Herri mailan :
 - ikuskizun bizirako gelak, edo ikuskizun biziak har ditzaketen erabilera anitzeko gelak
 - irakurketa publikorako ekipamenduak
 - ondare osagai babestuak

Lurralde batetik bestera, elkargoek kulturaren arloan duten esku hartzea ezberdina da:

- ✓ Kultur esku hartzeak kulturarena ez den beste eskumen batean oinarritzen dira (adb. "Lurraldearen animazioa" Hego Lapurdin, "irakaskuntza" ACBA), eta kultur eskumenak herrien esku gelditzen dira.
- ✓ Batzuetan esku hartzeak mugatuak eta xede zehatzekoak dira (adb. ACBA musika irakaskuntzari itzulia, Iholdi-Oztibarre Baxe Nafarroako Herri Antzokian duen parte hartzeari mugatua)
- ✓ Herri elkargo batzuek eskumena berenganatu dute baina ez dute osoki aktibatu (adb. Hazparneko eta Errobi-Aturriko herri elkargoak)

Hala ere, elkargo gehienek berdintasun bat dute; hots, **ikuskizun bizian eta musikaren irakaskuntzan** esku hartzen dute:

✓ **Ikuskizun biziaren arloko esku hartzea:**

- Beti osagai hauez egina da: kultur programazioa, sorkuntzaren laguntza, eskoletako hartzaileenganako eta bertze lehentasunezko hartzaileenganako bitartekaritza lana. Hiru ardatz horiek elkarri lotuak dira: bitartekaritza programatu ikuskizunen inguruan egiten da, egonaldian hartu ikusgarriak programatzen dira etab.
- Zuzenean kudeatua da (adb. Errobi, Hego Lapurdi), ala elkargoak elkarre batean parte hartuz (adb. Baxe Nafarroa Herri Antzokia).

2. Herri arteko elkargoak

- Gehienetan funtzionamendu kredituak baliatzen dituzte. Elkargoek herriko ekipamenduak baliatzen dituzte, partaidetza hitzarmenen bidez. Hala ere, herri arteko bi gela badira: Donapaleuko Saint Louis gela berria eta Izpurako Lutxi Borda gunea.
- Euskal kulturari lotu ikusgarriak oraino gutiengoan dira programetan (kasu hoberenean, euskarazko 4 ikusgarri zerrendatu dira guti gorabehera hamabost ikuskizuneko programan). Euskal kulturari buruzko ikusgarriak bi motakoak dira: euskarazko antzerkia, ala euskal dantza ikusgarriak, gisa garaikidean landuak (adb. 01.01, Baküna Show). Ikusgarri horiek talde profesionalek proposatzen dituzte, ala profesionalak eta goi mailako amateurak biltzen dituzten taldeek. Euskal kulturari dagokionez, herri antzokiek eta Eszena nazionalak mugaz gaindiko lankidetzak dispositiboak sortu dituzte eta bertan parte hartzen dute (Zubi; Eszena T).
- ✓ **Musika irakaskuntzaren arloko** esku hartzeari dagokionez, kontserbatorioaren edo/eta elkarte gisako musika eskolen **funtzionamendu-laguntza** izaten da. Kasik elkargo guziek musika irakaskuntzan esku hartzea Departamendu Kontseiluaren esku hartze eskemaren ondorioa da. Alabaina, Departamenduaren diru-laguntza eskuratu ahal izateko, musika eskola elkargoak zuzenean kudeatu behar du, ala elkargoak identifikatu edo hitzartu elkarteak izan behar du. Beraz, musika eskolen sarea, pixkanaka, herri arteko mailan egituratu da. Euskal kulturari dagokionez, ageri da herri elkargoek sostengatu musika eskola anitzek euskal kulturako tradiziozko musika tresnak ere irakasten dituztela.

Azkenik, **euskal kulturak herri arteko kultur politiketan duen tokiari dagokionez:**

- ✓ Herri arteko elkargoen araudiko eskumenetan ez da sekula izendatua, Errobi-Aturrin salbu.
- ✓ Praktikan, aldiz, batzuek nahikeriazko politika daramate (adb. Errobi elkargoa euskarazko antzerkiarentzat, Baxe Nafarroa Herri Antzokia).
- ✓ Hala ere, euskal kultura bere osotasunean jorratzen duen politika daraman elkargorik ez da.
- ✓ Elkargoek euskal kulturari buruz duten engaiamendua lurralde batetik bestera aldatzen da; horrek kultur kapital hori biztanle guziei berdin eskura ematearen galdea pausatzen du.

C - GOGOETA BIDEAK : ZER DA EUSKAL KULTURA?

1. Irekiduran sortu eta bizi kultura

Zer da guretzat euskal kultura? Euskal Kultur Erakundearen, Eusko Ikaskuntzaren eta Eusko Jaurlaritzaren obragintza pean 2005ean egin “Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendean” izeneko ikerketaren arabera:

- Ipar Euskal Herriko biztanleen %70entzat, Euskal Herriari dagokion sorkuntza oro euskal kultura da, edozein izanik ere baliatu hizkuntza
 - %56rentzat, euskal kultura euskarazko sorkuntza oro da
 - %54rentzat, euskal kultura euskal artista ororen sorkuntza da, hemen ala kanpoan sortua
 - %51rentzat, euskal kultura Euskal Herrian ekoitzi sorkuntza oro da, edozein izanik ere sorkuntzaren garai, hizkuntza eta sortzailea
- ➡ Ipar Euskal Herriko biztanleen erranetan oinarritu ikerketa horren arabera, iduriz, kultur adierazpenak “euskalduntzat” jotzen dira, kasuen arabera, baldin eta: gaia Euskal Herriari buruzkoa bada, edo euskara baliatzen bada, edo egilea Euskal Herrikoa bada, edo obra lurraldean egina bada. Lau irizpide horiek batuz, pentsa daiteke Euskal Herriarekin hurbil ala urrundik lotu kultur adierazpen oro euskal kulturari dagokiola.

Zentzu ezin zabalago hori, hain segur, gure lurraldea hizkuntza eta kultur adierazpen anitzekoa izatearen ondorioa da. Lurraldeko kultur aniztasunaz gain, eremu pribatuan batez ere, hedabideek eta internetek garraiatzen dituzten kultur edukiek biztanlea mundu-kulturaren mailan jartzen dute. Beraz, hain segur, lurraldeko biztanleek egunerokoan ez dute aniztasun hori molde zatikatuan bizi; alderantziz, batetik bestera pasatzen dira, aise eta inkontzienteki, bakoitza nahi duen osagaiekin “elikatzen” delarik. Bada hain segur biztanle bezainbat ikusmolde euskal kultura bizitzeko eta definitzeko. Eta artistak, kultur egileak, biztanle horietarik direnez, pentsa daiteke euskal kultura ere gisa berean elikatzen eta berritzen dela.

➡ Hortaz, euskal kultura, objektu bizi eta aldakorra, artista bakoitzaren proposamenaren arabera aldatzen da, bai beste kultura anitzekilako harremanean, bai bere tradizioaren interpretazioan.

2. Berezitasunak, kultur funts komunaren osagai

Alta, diskurtsoan, ohartzen gira hizkuntza, dantza, sukaldaritza, pilota eta abar kalifikatzen dituen “euskal” adjektiboak, giza talde batek gisa bereko bertze praktika ororen ezberdin bizi dituen praktikak izendatzen dituela. Beraz, adjektiboak ezberdintasuna azpimarratzen du, bereizketa eragiten, sailkatzen, eta, aldi berean, koherentzia eraikitzen. Kultur eta arte alorrei “euskal” adjektiboa gehitzeak dakartzan berezitasunak aztertzen baditugu, ohartzen gara **berezitasunak arte forma bereziari edota euskararen erabilpenari lotuak direla**; adibidez:

- Antzerkia: pastoral, maskarada, toberak... eta euskarazko antzerki mota oro
 - Dantza: euskal dantza bera, eta euskal dantzan oinarritu interpretazio garaikide oro
 - Musika: musika tradizionala (instrumentuak edota errepertorioa) eta euskarazko egungo musikak (euskal rocka) edo musika tresna tradizionalak baliatzen dituztenak
 - Kantua: euskarazko kantua
 - Bertsolaritza: alor berezia, osoki
 - Zinema: euskarazko zinema
 - Idatziak eta liburuak: euskarazko literatura eta argitalpen oro
 - Arkitektura: etxea eta bere interpretazio garaikideak
 - Etab.
- ➔ Elkarren ondoan emanik, berezitasun horiek **ezagutza, jakitate, irudikapen eta praktika kapitala** osatzen dute, batzuetan antzinako moldeetatik jinak, bestetan interpretazio garaikideetatik, edo euskara kultur arlo berrietara hedatetik (adb. Euskaraz egiten den pop eta hiri kultura guzia: zinema, rocka, hip hopa eta horiei lotu kultur industriak: diskoetxeak, argitaletxeak, hedapenerako egiturak etab.). **Kapital horrek kultur alor guziak hartzen ditu. Kultur funts komuna** osatzen du.

3. Lotura sortzen duen parte hartze praktika

Euskal kulturaren praktikatzeko moldeei buruzko oharra (ez dago diagnostiko osorik gai horri buruz)

- 
- **Norberetzat aritzea:** eremu publikoan, besta kari edo aste guziz (Baionan Kantuz, Mutxikoak Angeluko 5 kantoietan), jendeak kantuz, dantzan, bertsotan aritzen dira, talde batean, norberarentzat, eta horren bitartez, toki bat, momentu bat animatzen dute, eta bakarkakoa taldekoari lotuz;
 - **Erritu praktika/sorkuntza, agertua:** (toberak, pastoralak, maskarada, libertimedua etab.), maiz herri mailan antolatuak, egutegiko momentu berezi batean. Praktika horrek biztanleak bultzatzen ditu sorkuntza batean parte hartzera eta parekoen aitzinean agertzera. Ikusgarri horiek, urtero eta urtean behin baino gehiagotan, milaka ikusle erakartzen dituzte.
 - **Amateurren praktika/sorkuntza, agertua:** amateur talde bat, gehienetan goi mailakoa, biltzen da, maila jakin batera heltzeko xedearekin, arte-alor baten biziarazteko edo berriz asmatzeko xedearekin etab. (Bilaka, Xilaba...).
 - **Praktika/sorkuntza profesionala:** praktika profesionala, batzuetan, euskaraz baizik sortzen ez duten taldeek egiten dute, baina gehienetan bertze zenbait gauzaren artean euskal kulturaren ere ari diren konpainiek daramate (adb. Elirale, PTDP, Chimères etab.).

Funtsean, kultur praktika horiek ez dira trenkadaz zatituak, elkar elikatzen dute:

- Amateur praktika agertuek eta praktika profesionalak zorroztasun maila handia dute. Are gehiago, amateur praktika agertuek profesionalak enplegatzen dituzte soinu/argietan, jantzietan etab. Gisa berean, koreografoa, idazlea edo zuzendaria “aditu” bat izan daiteke: bere ezagutza/jakitatea sortzen ari den obraren zerbitzura ematen duen amateur pagatua. Baina profesionala ere izaten ahal da, dantza edo antzerki konpainia bateko kidea, lurraldekoa edo kanpokoak, aholku ematera jina.
- Erritu praktiketan eta norberarendako praktiketan, kultur obra, norbanakoen arteko elkarrekintza errituetan mamitzen da, eta beraz, gizarte harremana eta kultura komuna sendotzen ditu. Norbanakotik taldekora pasatzen da, talde bateko kide gara. Kultura hori parte hartzailea da, eta herriaren edo elkartearen baitan mamitzen da. Erabilera anitzeko geletan edo eremu publikoan berean gertatzen da, eta beraz, kultur eremuaren eta eguneroko eremuaren arteko muga desagerrarazten du. Kulturak lotura sortzen du, eta aldi berean, kalitate handiko arte proposamenak eragiten ahal ditu.

4. Lotura sortzen duen parte hartze praktika

Ez dea, hain zuzen, parte hartzaile eta biltzaile izate hori, euskal kulturarekiko atxikimendua sortzen duena? Ez direa artistak, profesionalak edo amateurrak, horrengatik ere lotzen euskal kulturari, urrunago xerkatzeko, deseginez eta berreraikiz, azkenean tradizioari kate-begi bat gehiago gehitzeko? Norberarendako praktiken eta erritu praktiken izaera parte hartzaileak ez ote du euskal kulturaren oinarria osatzen?

➡ Sintesia:

Hizkuntza eta kultur anitzeko lurraldean izanki, euskal kultura, kultura guziak bezala, sortzaile eta ikusle bakoitzaren arabera aldatzen da, bai kultur aniztasunarekin harremanean, bai bere tradizioaren interpretazioan. Beraz, ezin da marra garbiz mugatu. Euskal kultura eta lurraldeko beste kulturak ezin dira garbiki bereizi. Gainera, kontsumo eta kultur praktiketara, lurraldeko biztanleak batetik bestera pasatzen dira, aise eta hormarik gabe.

Hala ere, euskal kulturak kultur oinarri komuna ere badu, kultura kolektiboa eraikitzen duena. **Kultur funts partekatu hori kulturaren alor guzietan dagokie. Usu, berezitasunak euskararen baliatzea eta berezitasun formalak izatea ditu, baita praktika parte hartzailea izatea ere, gizarte loturarako bide azkarra dena.**

Hori dela-eta, beharrezkoa igartzen da kultur oinarri komun hori hobe identifikatzea, bere osagaiak eta egituratze moldeak aztertzea, transmisioa segurtatzeko, praktikak eta sorkuntza laguntzeko, hedapena sustatzeko, aise eta hormarik gabe, baina dituen berezitasunak errespetatuz.

➡ **Ondorioz, euskal kultura barne hartzen duen kultur politika orokor bat derrigorrezkoa da, euskal kultura ez baita baztertu behar. Eta aldi berean, beharrezkoa agertzen da ere “Euskal kultura”, kultur politika publiko ororen norabide eta xedeetan ongi identifikatzea. ➡ “Barneratzea ez baztertzeko, identifikatzea ez urtzeko”**

D – EUSKAL KULTURAREN KUDEAKETA MOLDEEI BURUZKO AHOLKUA, IPAR EUSKAL HERRIKO ELKARGOA SORTUKO BALITZ

Euskal kulturaren kudeaketa moldeei buruzko aholkua, Ipar Euskal Herriko elkargoa sortuko balitz

Ipar Euskal Herriko elkargo batek, egungo dispositiboen mugen gainditzeko, eta aldi berean unibertsalak eta bereziak diren euskal kulturaren beharrei ihardesteko aukera ematen du :

⇒ **Garrantzitsua da Ipar Euskal Herriko elkargoak kulturaren arloko eskumenak bereganatzea:**

Euskal kultura araudiko eskumenetan sartuz



Euskal kultura politika publikoetako gai bilakatuz



Orain arte EKEk zeramatzan eginkizunak bereganatuz eta politikoki zuzenean eramanaz sendotuz

Ikuskizun bizia, arteen irakaskuntza eta arte eta kultur hezkuntza araudiko eskumenetan sartuz



Egungo herri arteko elkargoen eskumenak eta praktikak batuz eta sendotuz.

Euskal kultura



Kultura

→ **Euskal kulturaren gaietan kultur politika zehaztea eta gauzatzea**

- Euskal kulturaren ikerketa eta behaketa funtzio bat sortuz: xedea: euskal kulturarendako kultur politika orokorra zehazteko eta egokitze lanen elikatzea, berteze erakundeen kultur politiketan euskal kultura barne hartzen dela zaintzea (Estatuan, Departamenduan, Eskualdean)

→ **Ikuskizun biziaren kultur politika zehaztea eta gauzatzea** (euskal kultura barne):

- Ikus-entzule guziendako kultur denboraldi bat ala gehiago eratuz
- Ikuskizun biziaren arloko sorkuntza sostengatuz
- Elkarreendako arte eta kultur proiektuak garatzeko ingeniariarritza eskura emanez

- Euskal kulturaren arlo guziei dagokien politika publikoaren zehaztea, euskal kulturaren transmisio, praktika, sorkuntza, hedapen eta sustapen erronkei ihardesteko lurralde osoan
- Politika publiko horren gauzatzea
 - Euskal kulturari dagozkion arlo guzietan esku hartuz
 - Eskumenez erakunde maila bat baino gehiago behar duten partaidetzazko proiektu egituratzaileen obragintza hartuz → EKEren jarraipena
- Herri arteko eta gehiagoko hedadura duten euskal kulturako eragileen proiektuak laguntzeko dispositibo mutualizatuaren sortzea: *NoTRE legea, L. 1111-8-2. art.* – Eskumen partekatutako dituzten arloetan, Estatuak, lurraldeko elkargo batek edo bere zerga sistema duen *HELEP* gisako elkargo batek (herri arteko lankidetzako erakunde publiko batek), hitzarmenez, laguntza edo diruztatzeak ematearen kudeantza aipatu pertsona publikoen esku utz dezake (...). → Orain arte EKEren esku ematen ziren Estatuaren, Eskualdearen eta Departamenduaren baliabideen mutualizatzea.

- **Arte eta kultur hezkuntzako politikaren zehaztea eta gauzatzea**, haurtzaindegitik lizeora (euskal kultura barne)
- **Arte irakaskuntzako politikaren zehaztea eta gauzatzea** (euskal kultura barne): musika, dantza, bertsolaritza, antzerkia, zirku-arteak, etab.



Euskal kulturari dagokionez, Ipar Euskal Herriko elkargoak eskumena hartzeak ondorio hauek izanen ditu:

- Euskal kultura lurralde osoari dagokion kultur politika orokorrean barneratzea
- **Elkargoa engaiatzea** transmisioa segurtatzera, praktikak eta sorkuntza laguntzera eta hedapena sustatzera, euskal kultura osatzen duten arlo guzietan esku hartuz
- **Gaitasuna eta ingeniariaritza indarra**, egungo herri arteko elkargoen eta EKEren baliabideak mutualizatuko dituen
- **Finantzamendu dispositiboaren sinplifikatzea**, eragileak eta kultur proiektuak laguntzeko dispositibo mutualizatuaren bitartez
- **Euskal kulturaren arloko elkarteak mobilizatzea**, berrantolatua izan den garapen kontseiluan.

E – ERANSKINAK

1. Euskal Kultur Erakundea.....23
2. 10 herri arteko elkargoak.....27

1. Euskal kultur erakundea

EKEren jardueren aurkezpen sintetikoa

I. Obragintza publikorako laguntza eginkizuna : kultur politika publikoak zehazteko aholkuen ematea

Botere publikoek galdeginik, EKEk euskal kulturari buruz duen gaitasuna baliatzen du tokiko eta lurraldeko herri elkargoei obragintza publikorako laguntzaren emateko, politika publikoetan euskal kultura hobe kontuan hartua izan dadin

- ✓ Kultur eskumena botere publikoen maila guzietan jokatzen denez eta kulturaren arlo guziak barne hartzen dituenek, EKEk bere gaitasuna baliatzen du euskal kultura barneratzen laguntzeko. adb: herri anitzen laguntzea euskal kultura beren programetan sartzen (adb. Biarritz, Donibane Lohizune, Baiona...); lurralde-ikerketen egitea, herri elkargoei galdeginik, kultur politika zehazten laguntzeko

Estatua	Eskualdea	Departamendua	Herriak eta beren elkargoak
Kultur eskumenaren antolaketa moldeak 2012ko Garapen Kontseiluaren lanetatik egokitua) (ez osoa -			
Ondarea-museografia: kontserbazioa, arauak, indusketak	Ondarea-museografia: inbentarioa	Ondarea-museografia: Departamenduko guneen kudeaketa adb. Ospitalea	Ondarea-museografia: guneen, erakusketa eremuen zuzeneko kudeaketa eta berritzeak/kontserbazioa
Artxiboak: artxiboen kontrol tekniko eta zientifikoa		Artxiboak: Departamenduko artxiboak	Artxiboak: herriko artxiboak
Irakurketa publikoa: mediatekei laguntza (funtzionamendua, inbertsioa)	Irakurketa publikoa: mediatekei laguntza (inberts.)	Irakurketa publikoa: BDP, funtsen eskura ematea, sarearen inberts. eta funtzion. Laguntza	Irakurketa publikoa: liburutegien eta mediateken kudeaketa zuzena
Kultur industriak: Zinematografiaren Frantziako zentroa, Liburuen Frantziako zentroa	Kultur industriak: kultur gertakari eta industriei laguntza (Eclia)	Kultur industriak: sorkuntza-ekonomiariendako sostengu eskemak = zinema eta ikus-entzunezko sorkuntzendako sostengu-funtsa	Kultur industriak: zinema gelak, gertakari eta jaialdiei sostengua
Arte plastikoak: arauak, kontrola → arte eskolen labelizazioa, diplomak	Arte plastikoak: Frac eskualdeko funtsa	Arte plastikoak: ikusizko arteen eskemak → arte garaikidearen sustapena eta Departamenduko artistendako sostengua	Arte plastikoak: erakusketa-guneeen kudeaketa, arte-erakusketak, herriko arte-bildumen osatzea eta kudeatzea
Ikuskizun bizia: egitura labelizatuak, inbertsiorako laguntza, arte-lanteladeen hitzartzea	Ikuskizun bizia: inbertsiorako laguntza, egitura labelizatuen sostengatzea, jaialdien eta gertakari handien sostengatzea	Ikuskizun bizia: ikuskizun biziaren Departamenduko eskemak: konpainia profesionalak sostengatuz sorkuntzaren laguntza, hedapenaren laguntza...	Ikuskizun bizia: sorkuntzaren laguntza, programatzea, ekipamenduak zuzenean kudeatzea
Arteen irakaskuntza: goi mailako irakasuntza, egitura labelizatuen sostengatzea, arauen zehaztea, diplomak etab.	Arteen irakasuntza: hastapeneko lanbide irakaskuntza, CRR kontserbatorioen finantzatzea	Arteen irakasuntza: musika, antzerkia, dantza, zirkua	Arteen irakasuntza: dantza, musika, zirkua, antzerki eskolak, zuzenean kudeatuz ala diruz lagunduz
Arte eta kultur hezkuntza: eragileen sostengatzea, egitura labelizatuen hezkuntza-eginkizuna		Arte eta kultur hezkuntza: PDEAC, lehenetasunezko hartzaileendako proiektu egituratzaileak gauzatzen laguntzea	Arte eta kultur hezkuntza: herri arteko elkargoen AKH proiektuak, herriek ikastetxeak sostengatzea etab.

Obragintzarako laguntzaren xedea: euskal kultura kultur politika publiko guzietan sartzea, lurralde osoa eta kulturaren arlo guziak elikatzekeo

1. Euskal kultur erakundea

II. Kultur eragileen laguntzea

Kultur eragileen laguntzea EKEren eginkizun nagusia izan da, sortzetik. Egun, sorkuntza amateurak eta profesionalak laguntzen eta hedatzen laguntzen segitzen du.

2014an EKEri galdegin diru-laguntzen xehetasuna

- ✓ Proiektu gehienek eragile amateur eta profesionalak batean hartzen dituzte
- ✓ EKEri egin galdeei dagozkien proiektu gehien-gehienak lurralde elkargoetan ere aurkezten dira
- ✓ Estatu / Eskualde / Departamendu erakundeei galdegin parte handiagoa da jaialdientzat eta batez ere sorkuntza profesionalarentzat

Proiektua	Hastapeneko aitzinkontua, orotara	EKEri galdegina	Lurr. elkargoei galdegina	DRAC-Depart- Eskualdeari galdegina	Europako Funtza	Produktu bukatu salmenta	Autofinantza mendua	Gaineratekoak
SORKUNTZA PROFESIONALAK								
15	591 682 €	65 000 €	80 050 €	146 000 €	17 848 €	97 800 €	175 984 €	9 000 €
12%	100%	11%	14%	25%	3%	17%	30%	2%
AMATEURRAK ETA PROFESIONALAK DITUZTEN SORKUNTZAK								
44	1 076 276 €	143 986 €	103 758 €	95 600 €	2 500 €	352 610 €	300 872 €	76 950 €
34%	100%	13%	10%	9%	0%	33%	28%	7%
JAIALDIAK								
24	1 636 226 €	89 700 €	150 100 €	308 700 €	34 000 €	818 886 €	217 740 €	18 100 €
18%	100%	5%	9%	19%	2%	50%	13%	1%
BERTZE ARTE ETA KULTUR HEDAPENAK								
41	463313	115382	40523	69000	6000	107000	117758	7650
32%	100%	25%	9%	15%	1%	23%	25%	2%
DIASPORA-ARTE TRUKEAK								
6	2 099 541 €	205 082 €	190 623 €	377 700 €	40 000 €	925 887 €	335 498 €	25 750 €
5%	100%	10%	9%	18%	2%	44%	16%	1%
Orotara								
130	7 637 198 €	836 337 €	758 062 €	1 241 301 €	120 696 €	2 774 593 €	1 637 909 €	223 400 €
	100%	11%	10%	16%	2%	36%	21%	3%

👉 2014an eman diru-laguntzak: 191 400 €ko funtsa - 87 proiektu eta gertakari sostengatuak 2014an

1. Euskal kultur erakundea

III. Kultur proiektuen obragintza

- **EKEren ondare-funtsaren indartzea**, bere ekintzak bi ardatzen inguruan berrantolatuz:
 - ✓ Ahozko ondarearen eta ondare immaterialaren bilketa: Kultura Ministerioaren Ethnople labela lortzeko proiektua
 - ✓ Sorkuntza garaikideari buruzko gogoeta: EKEk “oroimenaren eta sorkuntzaren” laborategia osatu nahi du, euskal kulturari buruzko truke eta gogoeta guneak iraunkor bilakarako, besteak beste lankidetzaren zientifikoaren bitartez.
- **Eskola denborako arte eta kultur hezkuntzako (AKH) eta eskolaldi inguruko aktibitate denborako (EIAD) gune baten sortzea**: 2015ean, EKEk belaunaldi berriari euskal kultura eskura emateko erronkari egokitu politika argia bultzatu nahi du; horretarako, arte eta kultur hezkuntzako eta eskolaldi inguruko aktibitate denborako baliabide-gunea sortzeko xedea du. Gune horren eginkizunak egungo eskaintza zerrendatzea, artistak eta elkarteak AKH/EIAD eskaintzaren egituratzen laguntzea eta horien arteko sarea erraztea dira.
- **Euskal kulturaren hedaduraren sustatzea**:
 - ✓ Proiektu egituratzaile eta berritzaileen bultzatzea (adb. euskal zinemaren hedapena)
 - ✓ Mugaz gaindiko lankidetzaren segitzea, iparraldeko sorkuntzen hedatzeko (adb. Donostia 2016) eta egonaldi partekatuen antolatzeak (adb. Intxaurrondo)
 - ✓ Euskal Herriak kanpoko partaidetzen segitzea (adb. Rocher de Palmer)
- **Informazioaren eta bitartekaritzaren zerbitzurako eskaintza numerikoaren garatzea**: EKEk zaintza-egitura bat sortu du kultur eta arte beritasunak deskodetu eta hedatzeko. Informatzea eta sentsibilizatzea erronka nagusietan ditu. Bestalde, EKEk bitartekaritzako tresna moderno eta erakargarrien eskaintza numeriko gero eta aberats eta anitzagoa garatu nahi du.

1. Euskal kultur erakundea

IV. Politika publiko programendako obragile :

Euskal kulturak alderdi zinez bereziak dituenenez (adb. hizkuntza berezitasuna), lurralde elkargoek EKE programa batzuen obragile gisa hartzen ahal dute. Obragile lan horrendako, finantzamendu bereziak baliatzen dira. Adb: antzinako soinu eta film artxiboak babesteko eta agerian emateko programa, Departamenduko artxiboen *Archives départementales* egiturak EKEren esku emana.

2. Herri arteko erakundeak

Herri arteko 10 erakundeek kulturaren eta bereziki euskal kulturaren arloan dituzten eskumen eta praktiken argazki sintetikoa – herri arteko lurralde horietako ondarearen, kultur ekipamenduen eta kultur eragileen zerrenda.

I. Hego Lapurdiko Hirigunea

- **Elkargoa:**

- ✓ Araudiko eskumenak:

“2. Lurraldearen animazioa:

2.1: Hedapena: ikusle ororendako denboraldia; ikuskizunak haurtzaindegitik lizeora.

2.2: Sorkuntza: gazteendako sorkuntzaren sostengatzea, bai haurtzaindegitik lizeorako ikuskizun programan, bai ikusle ororendako denboraldian.

2.3: Transmisioa: arte eta kultur hezkuntzaren aldeko politika baten garatzea, kulturaren arlo guzietan.

2.4: arte eta kultur proiektuen garatzeari buruzko ingeniari, herri eta elkarteendako; egungo musiken laguntzea; ahotsaren eta euskal koru-kantuaren inguruko proiektu-eramaileen laguntzea. Eskumena jarduera horiek guziak garatzeko funtzionamendu-kredituak mobilizatzea mugatzen da. Hiriguneari urririk eskura eman edo alokatu herri ondasunetan bermatzen da, urte anitzeko partaidetza hitzarmenei esker.”

- ✓ Praktikan: denbora osoko 4 langileko zerbitzua, lurraldeko toki guzietan arte hitzorduen proposatzeko.

- Programazioa: 2014-2015 ikasturtean, 15 ikuskizun: zirkua, dantza, antzerkia, kaskopeko kontzertu kontatua, txotxongiloak, musika-iratzartzea; horietako 1 euskaraz
- Artista egonaldiak: hemengo eta kanpoko artistak eta unibertsitarioak, obren sortzeko. 2014-2015 ikasturtean, 5 egonaldi, horietatik 4 tokiko artistentzat (Elirale, LagunArte, Philippe Albor eta Patrick Fisher, les Chimères), euskarazko sorkuntzarik ez
- Artistak agertokitik kanpo ezagutzea, entseguetan eta muntaketa teknikoetan parte hartuz,

2. Herri arteko elkargoak

- Arte praktika proposamenak, Spect'Acteur Eskolari edo egungo musiken arloko Lanetik Egina elkarteari esker
- Proiektuak lurraldeko eskola eta haurtzaindegietan, haurrak eta gazteak arteari sentsibilizatzeko, Arte Hezkuntzako Tokiko Kontratuari esker (CLEA)
- **Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: 64DKko lurralde argazkia)

Ondarea - museoa - erakusketa	Irakurketa publikoa	Ikusizko arteak	Ikuskizun bizia	Arte irakaskuntza
66 monumentu babestu MH gisa, horietatik 7 sailkatuak, eta babestu ondare higigarri aberatsa Baratze botanikoa, Dukontenea, Portuko erretegia, Abbadia gaztelua	- mediateka sare-burua Donibane Lohizunen - Mediateka Hendaian - denendako elkarte-liburutegi 1 Urruñan	Arte eta saiakerako zinema gelak Hendaia, Donibane L-n, Zinema gelak Getarian eta Urruñan	- Ekipamenduak: Mendi Zolan Hendaian, Larreko Senperen - Erabilera anitzeko gelak: Jai Alai Donib.L-n, , Ravel Auditoriuma, Biltoki Azkainen, Lurberri Saran, Itsas mendi Urruñan, Ahetzeko herriko gela	- Kontserbatorioaren 2 adar Donib.L-n eta Hendaian, - Herriko musika eskola 1 Donib.L-n, -7 elkarte-eskola Azkainen, Urruñan, Arbonan, Hendaian, Ziburun, Donibane L-n

- **Zerrendatu kultur elkarteak eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):

173 kultur eragile, honela banatuak: 103 ikuskizun bizian + 11 arte irakaskuntzan + 18 literaturan + 16 ondarean + 25 ikusizko arteetan (arte plastikoak + zinema)

2. Herri arteko elkargoak

II. Errobi Herri Elkargoa:

- **Elkargoa:**

- ✓ Araudiko eskumena: *“Musika irakaskuntzari eta ikuskizun biziari buruzko lurraldeko kultur proiektuaren gauzatzea: proiektuarekin eta elkartearekin bat egin duten tokiko musika irakaskuntza egiturak biltzen dituen herri arteko elkarte gisako musika eskola bat sortzen eta funtzionatzen lagunduz: diru-laguntza horren xehetasunak elkartearen, Departamendu Kontseiluaren eta Herri Elkargoaren arteko partaidetza eta helburu hitzarmenean zehaztuak dira; ikuskizun biziaren aldeko politika publikoa garatuz: orain arte Harri Xuri programaren baitan gauzatu karrikako arteen fabrika eginkizuna segitzea eta garatzea, xede hartzaileekin –batez ere eskoletakoekin- bitartekaritza lana eramatea, ahal bezainbat ikusleri ikuskizun bizia (ekoizpena eta hedapena) eskura ematea ahalbidetzen duen programa antolatzea eta tokiko elkarte gisako kultur eragileei ingeniarietza-laguntza ematea. Zehazten da kulturaren arloan Herri Elkargoaren esku hartzea goiko bi eginkizunei mugatua zaiela; esku hartzea, bestalde, funtzionamendu-kredituak mobilizatzea mugatuko da.”*

- ✓ Praktikan: denbora osoko 4 langileko zerbitzua

- Arte irakaskuntzan, eskumena besteren esku emana → Herri arteko Musikas musika eskolaren sortzea eta funtzionatzen laguntzea: elkarteak 6 adar biltzen ditu. Euskal musika tradizionalak, egungo musikak, haur korua, harmonia... adar bakoitzak estetika berezia du. Elkarrekin ere lan egiten dute, elkarren munduen nahasteko, kontzertu batzuekiko lankidetzan arituz edo elkarrekin sortuz.
- Bitartekaritza, hartzaile jakin batzuekin, batez ere eskoletakoekin;
- Hameka, Errobi Herri Elkargoak kudeatu lurraldeko kultur proiektuaren “Ikuskizun Bizia” ardatza, karrikako arteen eta euskarazko antzerkiaren “fabrika” gisakoa da:
 - ✓ 2014-2015 kultur denboraldia: 13 ikusgarri, eta horietatik 3 euskaraz, 3 hitzik gabeak, 7 frantsesez
 - ✓ Egonaldiak: behin-behineko 10 egonaldi, eta horietatik 4 euskarazko sorkuntzendako - 3 egonaldi iraunkor (Kilikolo zirko, IDB, le Petit Théâtre De Pain.)
 - ✓ Partaidetzak, besteak beste Donostia 2016rekin, Zubirekin (euskarazko antzerki sorkuntza berriaren sostengatzeko)

2. Herri arteko elkargoak

- **Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: 64DKaren lurralde argazkia)

Ondarea – museoa – erakusketa	Irakurketa publikoa	Ikusizko arteak	Ikuskizun bizia	Musika irakaskuntza
15 monumentu sailkatu, Arnaga etxeak Frantziako Museoen labela	2 mediateka Uztaritzen eta Kanbon 3 liburutegi (Itsasu, Basusarri, Ezpeleta) Irakurketa gunek 1 Larresoron	“Arte eta saiakera” labela duen zinema 1 Kanbon	Erabilera anitzeko gela batzuk: AIEC Kanbon, Denentzat, Sanoki Itsasun, Kiroleta Uztaritzen, Naturaren Antzokia Arrangoitzen, Denendako Etxeak Larresoron eta Basusarrin, Arnaga etxeako lorategiak, baserrialdeko bilgunea eta patronaia Ezpeletan	Elkarte gisako herri arteko musika eskola 1: Musikas

- **Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):

76 kultur eragile: 47 ikuskizun bizian + 8 arte irakaskuntzan + 5 literaturan + 4 ondarean + 12 ikusizko arteetan

2. Herri arteko elkargoak

III. Garazi-Baigorri Herri Elkargoa

- **Elkargoa**

- ✓ Araudiko eskumenak:

“Ondare-guneen babesteko eta berritzeko diru-laguntzak”

“Herri Antzoki baten sortzea eta gauzatzea, ikuskizun biziak ekoitziz eta hedatuz; lurraldean zerbitzu publikoak mantentzearen eta garatzearen alde egiten duten ekintzak: (...) Liburutegia – Mediateka; Kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan ari diren eta herri-interesa gaingitzen duen jarduera duten elkarteei diru-laguntzen ematea.”

- ✓ Praktikan:

- Kultur elkarteen finantzatzea
- Elkarte gisako herri arteko Iparralai musika eskola funtzionatzen laguntzea
- Liburutegi-mediatekaren kudeatzea
- Nafarroako Herri Antzokian parte hartzea: (denbora osoko 3 langile)
 - ✓ Kultur denboraldiak: 19 ikusgarri, eta horietatik 4 euskaraz – 1 elebitan – 6 hitzik gabe – 8 frantsesez
 - ✓ Egonaldiak: 4 egonaldi; horietatik: 2 Donostia 2016ren baitan (Dantzaz, Rouge éléa), 1 Zubi euskarazko antzerkiaren laguntzeko dispositiboaren baitan (Lauka Teatroa kia), 1 gazteendako sorkuntza (Orobil borobil)
 - ✓ Eskoletako saioak – arte eta kultur hezkuntza

2. Herri arteko elkargoak

- **Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: 64 DKren lurralde argazkia)

Irakurketa publikoa	Ondarea	Musika irakaskuntza	Ikuskizun bizia	Ikusizko arteak
- Herri arteko liburutegi 1 Donibane Garazin - 2 irakurketa-gune Bidarrain eta Arrosan - Biltoki 1 Ortaizen	- 44 eraikin eta objektu higigarri MH gisa babestuak - 2 museo-ekipamendu, Donazaharren eta Bankan	- Herri arteko musika eskola 1 Donibane Garazin, adar batekin Baigorriin	- Erabilera anitzeko 2 gela: Plaza Xoko Baigorriin eta Faustin Bentaberri Izpura	- Zinema gelak Arrosan eta Donibane Garazin - Zinema gela Baigorriin (noizbehinkako programazioa)

- **Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):

56 kultur-eragile zerrendatuak: 33 ikuskizun bizian + 5 arte irakaskuntzan + 5 literaturan + 10 ondarean + 3 ikusizko arteetan

2. Herri arteko elkargoak

IV. Amikuze Herri Elkargoa

- **Elkargoa**

- ✓ Araudiko eskumenak:

“Kultur eta kirol ekipamenduen eta eskolaurreko eta lehen mailako hezkuntza ekipamenduen eraikitzea, zaintzea eta funtzionaraztea: (...) mediateka, musika eskola; elkargo-intereseko ikuskizun gela baten sortzea eta kudeatzea”.

“Kirol, kultur eta eskolako animazioaren politika: kultur programazioaren eta hedapenaren laguntzea (Euskal kulturaren aldeko herrien arteko sindikatak beregain hartzen ez dituenak); herri antzokiaren kide egitea; gaineratekoak: Musika-eskola: kultur programazioaren eta hedapenaren laguntzea (Euskal kulturaren aldeko herrien arteko sindikatak beregain hartzen ez dituenak).

- ✓ Praktikan:

- Amikuzeko herri arteko musika eskolaren funtzionamenduaren laguntzea: zehar flauta, klarinetea, saxofoia, tronpeta, tronboia, tuba, biolina, eskusoinua, gitarra; txistua, gaita, xirula, trikitixa, panderoa, bateria, pianoa, haurrendako koru-kantua, instrumentu-multzoen formakuntza.
- Herri arteko mediatekaren kudeatzea.
- Baxe Nafarroako Herri Antzokia dispositiboan parte hartzea (ikus 18. diapoa)
- Ikuskizun bizi eta zinema gela bat, kudeaketa Argitze elkartearen esku izanen duena.

2. Herri arteko elkargoak

- **Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: 64DKaren lurralde argazkia)

Irakurketa publikoa	Ondarea	Musika irakaskuntza	Ikuskizun bizia	zinema
- Herri arteko mediateka bat - Irakurketa gune bat Oragarren - Biltoki bat Arberatzen	- 9 eraikin MH gisa babestuak - Baxe-Nafarroako museoa Donapaleun - Ondare inmaterialaren bilketa EKEk eramana	- Herri arteko musika eskola bat	- Herria arteko ikuskizun biziko gela bat	- Zinema gela bat

- **Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):

27 kultur eragile zerrendatuak: 15 ikuskizun bizian + 3 arte irakaskuntzan + 2 literaturan + 6 ondarean + 1 ikusizko arteetan

2. Herri arteko elkargoak

V. Iholdi-Oztibarre herri elkargoa:

- **Elkargoa:**
- ✓ Araudiko eskumenak: “herri antzokian parte hartzea”
- ✓ Praktikan:
 - Herri Antzokia dispositiboan parte hartzea (ikus 20. diapoa)
 - Irisarriko Ospitalea guneko mediatekaren kudeatzea
- **Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: 64DKaren lurralde argazkia):

Ondarea / museografia	Irakurketa publikoa	Ikuskizun bizia
19 eraikin monumentu historiko gisa sailkatuak Hilobi-artearen interpretazio zentroa Larzabalen Ospitalea Ondare Heziketa Zentroa (OHZ)	OHZn mediateka 1 3 biltoki Bunuzen, Jutsin, Donaixti-Ibarren	Zuentzat gela Armendaritzen

- **Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):
13 kultur eragile: 6 ikuskizun bizian + 4 ondarean + 3 ikusizko arteetan

2. Herri arteko elkargoak

VI. ACBA

- **Elkargoa:**
- ✓ Araudiko eskumenak: kultur eskumenik ez – “D) Irakaskuntza: irakaskuntzaren garatzea, besteak beste arte plastiko eskoletan eta eskualdeko Frantziako kontserbatorioaren sindikatu mistoan parte hartuz.”
- ✓ Praktikan: irakaskuntza eskumenean oinarritu kultur praktikak
- Rocailles arte eskolaren kudeatzea
- Maurice Ravel eskualdeko hedadura duen kontserbatorioaren sindikatu mistoan parte hartzea
- Euskal museoaren sindikatu mistoan parte hartzea

2. Herri arteko elkargoak

- Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: DKaren lurralde argazkia)

Ondarea – museoak	Irakurketa publikoa	Ikusizko arteak	Ikuskizun bizia	Arte irakaskuntza
<u>38 eraikin babestu</u> monumentu historiko gisa; horietarik 8 sailkatuak Museoak: - 3 museo labeldun (Natur historiaren museoa, Baionako euskal museoa, Bonnat-Halleu arte ederren museoa) - Bertze museoak: Biarritzeko historia museoa, Asiatica, museoa, Biarritzeko itsas museoa	- <u>Irakurketa publikoko ekipamenduak</u>, hiri mailakoak, ACBAko hiri bakoitzean: ekipamendu berriak Bokalen, Biarritzen, Angelun	- <u>5 zinema</u>: arte eta saiakerako 2 zinema, gela anitzeko 2 zinema, Bidarteko zinema gela - <u>Jaialdi anitz</u> (kai guneko topaketa, Fipa, zinema latino-amerikarren jaialdia etab.)	<u>Baiona</u>: Herriko antzokia, La Luna Negra, le Caveau des Augustins <u>Biarritz</u>: la Gare du Midi, Colisée gelako kultur gunea, Kasinoko antzokia, Atabal egungo musiken gela <u>Angely</u>: Barojako zalditegiak, Quintaou antzokia <u>Bokale</u>: Paul Vaillant Couturier kultur gunea <u>Bidarte</u>: zinema gelak <u>Eragile identifikatuak</u>: Eszena nazionala, Ballets Biarritz koreografia zentroak, 3 hitzarmenezko konpainia, kalitatezko jaialdi eta gertakari anitz	<u>Bokaleko CAEM gunea</u> herriak eskura eman getetan

- Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):

162 kultur eragile zerrendatuak: 96 ikuskizun bizian + 12 arte irakaskuntzan +16 literaturan + 19 ondarean + 19 ikusizko arteetan

2. Herri arteko elkargoak

- **Akitania hegoaldeko eszena nazionalari buruzko xehetasunak: denbora osoko 20 lanpostu**
- ✓ Kultur proiektua:
 - Sorkuntza: *“Frantzia mailako erreferentziako arte-ekoizpen gune gisa plantatzea, kultura garaikidearen arlo batean edo bertzean...”*
 - Hedapena: *“Arte moldeen hedapena eta topaketa antolatzea, sorkuntza garaikideari lehentasuna emanez.”*
 - Kultur ekintza: *“Bere eremuko arte sorkuntzarekiko portaera berriak eta arte sorkuntza gizartean hobe barneratzea sustatzen dituzten kultur garapen ekintzetan parte hartzea”.*
- ✓ 2015-2016 denboraldiko programa: 62 ikusgarri; horietatik 1 euskaraz: *Imanol gogoan* musika ikusgarria
- ✓ Koprodukzioak: 8 sorkuntza; horietatik 3 tokiko konpainienak, frantsesezko antzerki-sorkuntzentzat; hegoaldeko 2 konpainiaren sorkuntzak: Kukai (dantza) , Kulunka teatro (hitzik gabeko antzezlanak).
- ✓ Partaidetzak: Culture/Kultura: Culture/Kultura-rekin, Akitania hegoaldeko eszena nazionala eta Euskal Kultur Erakundea Euskal Herriko kultur garapenaren alde egin nahi duten guzietan irekia den mezenasgo partaidetza-desmartxan sartu dira; Eszena T: Akitania hegoaldeko eszena nazionalak eta Donostiako Victoria Eugenia antzokiak Eszena-T – mugaz gaindiko eszena sortu dute. Denboraldi honetan berean, ekintzak sortuko dira arte-sorkuntzaren, artearen hedapenaren eta ikus-entzuleen mugikortasunaren alde (ikus beherago).
- ↪ Hedapen guneak: Bokale, Angelu, Baiona, Donibane Lohizune (eszena nazionaleko herri kideak)

2. Herri arteko elkargoak

VII. Xiberoko herri elkargoa

- **Elkargoa:**
- ✓ Araudiko eskumenak: *“kultur eta kirol ekipamenduen eta eskolaurreko eta lehen mailako ekipamenduen eraikitzea, zaintzea eta funtzionaraztea: elkargoak elkargo-interes gisa hartu eskumena: kultur programazioaren, sorkuntzaren eta hedapenaren laguntzea, bertze elkargoekin eta partaide publikoekin izenpetu kontratu-politiken baitan; Xiberoko musika-eskolaren funtzionamendu orokorrean parte hartzea, nahiz herriek noizbehinkako animazioen eta elkarteen egoitza-gastuen finantzamenduan parte har dezaketen; elkargoaren baitako irakaskuntza eta lanbide heziketa guneen sustapen eta animazio ekintzetan parte hartzea.”*
- ✓ Praktikan:
- Sü Azia diruz laguntzea, ondare immaterialeko soinu bilketarendako
- Maulen eta Atharratzen bi adar dituen musika eskolaren funtzionamendua laguntzea
- Kultur programazioa, bitartekaritza eta kultur eta arte hezkuntza ekintzei loturik, Mauleko hiriarekin partaidetzan: elkargoak euskal kulturari dagokiona hartzen du beregain, bai sorkuntzarentzat, bai hedapenarentzat. 2014-2015 denboraldian: 11 ikusgarri; horien 2/3 euskaraz
- Proiektu bat IDBrekin partaidetzan, euskal dantzaren alde

2. Herri arteko elkargoak

- **Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: 64DK lurralde argazkia)

Ondarea - museoak	Irakurketa publikoa	Musika irakaskuntza	Ikuskizun bizia	Ikusizko arteak
- 30 eraikin babestu, monumentu historiko gisa; horien artean, Mauleko gaztelua eta St Blaise ospitalea - Mauleko turismo bulegoko Ondarearen Etxea	- herri arteko hedadurako liburutegi 1 Maulen - 3 irakurketa gune Atharratzen, Larrainen, Montorin - Biltoki 1 Altzain	- Herri arteko musika-eskola, Atharratzek eta Maulek sostengatua	- Mauleko hiriaren kultur denboraldia - Herriko antzoki 1 Maulen	- Arte eta saiakerako zinema: Maule Baitha

- **Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):

45 kultur eragile: 23 ikuskizun bizian + 9 arte-irakaskuntzan + 1 literaturan + 6 ondarean + 6 ikusizko arteetan

2. Herri arteko elkargoak

VIII. Hazparneko lurraldea

- **Elkargoa:**

- ✓ Araudiko eskumenak: “*elkargo mailako kultur politikaren zehaztea eta, beharrez, bere garapenaren gauzatzea*”

- ✓ Praktikan:

- Musika irakaskuntza: herri arteko musika eskolaren funtzionamenduaren sostengatzea
- Elkargoko hedadura duten lurraldeko elkarten laguntzea: Eihartzea, Traboules, EHZ, Lagunarte etab.
- Animatzaile bat denbora erdiz enplegatzea, elkargoaren kultur politikaren garatzeko

- **Zerrendatu kultur elkarte eta ekipamenduak** (iturria: 64DKren lurralde argazkia)

Ondarea	Irakurketa publikoa	Musika irakaskuntza	Ikusizko arteak	Ikuskizun bizia
- Zenbait eraikin MH gisa babestuak - Etnografia bilduma 1 Xantxotean - Historiaurreko funtsezko gune 1: Otsozelaia	- Herri arteko hedaturako herri liburutegi 1 Hazparnen - 2 liburutegi: Beskoitzen eta Bastidan - 2 biltoki: Lekuinen eta Heletan	elkarte gisako musika eskola 1 Hazparnen (adar bat Beskoitzen)	Haritz barne zinema, Hazparnen	- Francis James kultur gunea Hazparnen - Erabilera anitzeko gelak: Mendeala Hazparnen, Gaztetxea Heletan, Bastidako kultur erabilera anitzeko gela

- **Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):

42 kultur eragile: 21 ikuskizun bizian + 1 arte-irakaskuntzan + 4 literaturan + 8 ondarean + 8 ikusizko arteetan

2. Herri arteko elkargoak

IX. Bidaxuneko herri elkargoa

- **Elkargoa:**
- ✓ Araudiko eskumenak: *“kultur eta kirol ekipamenduak: Gixuneko eta Bidaxuneko gazteluak eta pilotaleku ohia: alokatze kontratu enfiteutikoa, guneko eraikinen sendotzea eta agerian ematea; bertze eraikin bat monumentu historiko gisa sailkatua. Herriei laguntza: Musika eskola: musika-eskola baten martxan ematea eta funtzionaraztea”*
- ✓ Praktikan:
 - Musika irakaskuntza: Bidaxuneko musika eskolaren funtzionamenduaren sostengatzea
 - Gixuneko eta Bidaxuneko gazteluen kudeatzea eta agerian ematea
- **Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: 64DKren lurralde argazkia)

Irakurketa publikoa	Ondarea	Musika irakaskuntza	Ikuskizun bizia	Ikusizko arteak
- zubi liburutegi 1 Bidaxunen - biltoki 1 Bardozen	- 8 eraikin babestu, MH gisa - Erangoko harpea - Erauzketa gaitasunak	- Elkarte gisako herri arteko musika eskola	- Bidaxuneko besta gela - Bardozekeo baserrialdeko bilgunea	- Bardozekeo Salha gaztelua

- **Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak:**
- 4 kultur eragile: 3 ikuskizun bizian + 1 arte irakaskuntzan

2. Herri arteko elkargoak

X. Errobi-Aturri Herri Elkargoa

- **Elkargoa**

- ✓ Araudiko eskumenak:

“B) kirol eta kultur ekipamenduak: Ikerketak: elkargo interesa duten kirol eta kultur ekipamenduen eskemaren egitea; Lanak: eskema horren gauzatzea eta zehaztu ekipamenduen sortzea”

“C) lurraldeko animazioa eta kultur politika: Musika hezkuntza: musika hezkuntzan politika orokor baten zehaztea, gauzatzea eta kudeatzea: herri arteko musika eskola baten sortzea, elkartearen sostengatzea... musika hezkuntzaren Departamenduko eskemaren baitan; Gertakariak: elkargo mailako gizarte, kultur eta kirol gertakarien antolatzea; Elkarteak: elkartearen arteko elkargo mailako trukeak eta partaidetzak erraztea eta sostengatzea, gizartearen, kulturaren eta ekonomiaren arloetan; Euskal kultura: euskal kulturaren ezagutza eta praktika sostengatzea, batez ere euskarazko irakaskuntza, euskararen erabilpenaren garapena, dantza, kantua...”

- ✓ Praktikan:

- Musika irakaskuntza: lurraldeko elkarte gisako musika eskolen laguntzea

- **Zerrendatu kultur ekipamenduak eta ondarea** (iturria: 64DKaren lurralde argazkia)

Irakurketa publikoa	Ondarea	Musika irakaskuntza	Ikuskizun bizia	Ikusizko arteak
- 2 irakurketa gune, Urketan eta Ahurtin - 2 biltoki, Mugerren eta Milafrangan	- 4 eraikin babestu, MH gisa - ondare ibilbide bat 1 Mugerren	- Elkarte gisako musika eskola bat	- Erabilera anitzeko gela zenbait lurraldean	- Erakusketa gela 1 Hiriburuko <i>Benoîterie</i> gelan

- **Zerrendatu kultur elkarte eta eragileak** (iturria: EKEren datu-basea):

27 kultur eragile: 16 ikuskizun bizian + 1 arte irakaskuntzan + 2 literaturan + 5 ondarean + 3 ikusizko arteetan